



**GUDA INPERIALISTAREN ETA IAIE-REN AURKAKO HERRIEN
AUZITEGI IRAUNKORRA**
**Eratze batzarraren behin betiko ebazpena, Madrilen 2015eko azaroaren
6,7 eta 8an.**

Hitzaurrea:

GIIAHAIk bere lehenbiziko batzarra Madrilen ospatu du 2015eko azaroaren 6,7, eta 8an. 70 pertsona baina gehiagok izena eman eta parte hartu dute. Lau mahai tematiko osatu dira: IAIE, komunikazio medioak, errefuxiatuak eta intentsitate baxuko gudak. Mahaien lana kanpo ekarpenez egindako 30 testuen eta GIIAHAIaren Idazkaritzak egindakoen aurkezpenaren ostean egin da. Mahai bakoitzaren lanen emaitzak lehenbiziko osoko bileran aurkeztuak izan dira Auzitegiaren kide guztiek eztabaidatzeko. Emaitza horiek erakusteko prestatutako ebazpen partzialak eranskin modura aurkezten dira. Eztabaida hori oinarri hartuta idatzi eta eztabaidatu da GIIAHAIren Lehenbiziko Ebazpen hau.

GIIAHAIren LEHENBIZIKO EBAZPENA

I. Zergatien azalpena: Guda, honen tresnak eta erantzuleak epaitu.

1945an “bitarteko baketsuen bidez nazioarteko gatazkak konpontzea” ahalbidetuko zuen Nazio Batuen sorreratik egun arte mundua suntsitu duten guda forma ezberdinak ez dira baizik areagotu.

Zifrak, zeintzuk agerian uzten duten gudaren merkatuan giza bizia beherantz kotizatzen duen balio bat dela, latzak dira: 16,5 milioi hildako, 70 milioi desplazatu inguru 2015 urtean eta zifra are handiagoak gorputz eta buruan kalte iraunkorrak dituztenei dagokionean. Naiz eta etsaiaren sorrera prozesuan herriak ez dira esplizituki agertzen, horretarako gobernu ereduak erabiltzen baitira, gobernari konkretuak edo kontzeptzio ideologikoak, herriak dira prezio jasangaitzak ordaintzen dituztenak. Azken hamarkadan biktimen %90 borrokarik egiten ez zuten zibilak izan dira, eta hautatik %70a emakumeak eta haurrak.

Egoera hau modu desberdinean banatzen da: alde batetik, “mendebaldeko mundua” bere buruari deritzona, garatutako herrialde zuriak, IAIE eta AEBen inguruan militariki bilduak, zeintzuk munduko indar armatuen %70a daukaten eta nukleoa tradizio inperiala duten herrialdez osatua dagoen: Erresuma Batua, Frantzia, Alemania, Italia, Espainia, Herbehereak, Turkia, AEBren gidaritzapean. Herrialde hauei Israel batzen zaie, dominazio inperialistaren mantentze paper berebizikoa daukan Estatu sionista koloniala; Palestinako auziarekin elkartasuna erakusteko, Auzitegi honek bere terminologia hartzea erabaki du, eta hemendik aurrera “entitate sionistaz” hitz egingo da. Bestalde, mendebaldeak “hirugarren mundua” izendatu duena, etnikoki anitza, mendeetan mendebaldeko kolonialismoaren ustiaketa jasan duenak, non gatazka armatuen gehiengoa aurkitzen den eta desplazatuen %86a aurkitzen den.

1945eko Nazio Batuen gutunean “erakundearen kideek uko egingo dioten mehatxua edo bortizkeriaren erabilerari edozein estaturen lurralde osotasunari edo independentzia politikoaren aurka” dioen bitartean, azken hamarkadetako garapen produktibo eta tekniko-zientifikoak harreman ekonomiko, politiko eta sozialen sistema konplexua eratu du, zeinen bitartez mendebaldeko inperioaren zabalpena mundu osora ahalbidetzen den.

Inperio hau munduaren gaineko bere domeinuak bakarrik biziraupena bermatu diezaiokeenaren

oinarriean ekiten du, nazioarteko korporazio handiek negoziotzat daukaten mundua, zeinen izateko arrazoi bakarra metatze ekonomikoa den, horretarako boterearen metaketa eta hori erabiltzeko beharrezkoa den indarraren metaketa gabe ez dela posible onartuz. Bere helburua mugagabea bada, mugagabeak dira ere bitartekoak eta ondorioak. Ejertzitoen pribatizazioak, mertzenarioen ejertzitoek, herrialde osoak kaosean murgiltzeak, mugagabeko basakeria dakar berekin.

Orain arte ekintza espedizionario hauek erantzun gaitasun gutxiko herrialdeetan gauzatu dira. Egun guda gaitasun handiko herrialdeak jazartzen ari dira estrategia berdina jarraituz: kriminalizatzea, baztertzea eta erasotzea. Lehenbiziko eta bigarren fasea martxan dira jada, baina hirugarrenera heltzekotan ondorioak aurreikusi ezinak izango zitezkeen.

Guda-mundu honetan, inperialismoak edozein barne erresistentzia kontrolatu behar du eta, eskubideen ezeztatze eta errepresio egitekoekin batera, kultura belizista baten eraikuntza egiten ari da zeinetan indarraren erabilera, guda eta honen ondorioak justifikatzen diren. Gure etsaiak nortzuk diren esaten digu, sorburua ezkututzen digu, ondorioak justifikatu eta gutxitzen ditu eta, batez ere, gure oroimenetik bere historia ezabatzen du errepikatu ahal izateko. Komunikazio bitartekoek ejertzito oso batek parte hartzen du errealitatea okertzeko eta biztanleria bortizkeria eta suntsipena gizateria salbatzeko beharrezkoa dela sinestarazteko.

Guda inperialista ausazkotasunean oinarritzen da: araua botereak duena ezartzen du eta bilatzen denaren arabera aldatzen du, azken helburuak ezkutatzera behartuak, ekintza oro salbuespenezko bihurtzen da eta autojustifikatua. Baldintza horietan zigorgabetasuna ziurtaturik dago.

Horrela kontraesanek beteriko errealitate bat konfiguratu da non inperialismoa, mundu mailako helburuak bilatzen dituenak, aldi berean bunkerizatu eta geroz eta garaiagoak, luzeagoak eta zorrotzagoak diren hesiez inguratutako gotorleku bat bihurtzen den. Oso zaila da egungo inperialismoaren dimensio erreala ikustaraztea ikusezin egiten ikasi duelako. Egun, inperialismoak bere arrastoa ezkututzen duten estrategien bitartez ekiten du, propaganda edo informazioa baino haratago joanez. Inperialismoa lurraldeak konkistatzeko gai da militarki okupatu gabe, horretarako estalpeko operazioak edo dronak ere erabiliz. Ez dauka gailurrik, potentzia inperialista bakoitzak independentzia erlatiboz aritzen baita, baina ez zuzendaritzari dagokionean, azkeneko momentuan potentzia inperialistek haien interesak bat egitea lortzen baitute. Esan dugunez, herrialde zurien mesedetan aritzen da, baina nolakotasun horiek ez dituzten herrialdeen eliteen oniritziarekin. Praktikan defentsibotzat aurkeztea lortzen du oso zaila baita mehatxuen sortzaile bezala duen erantzukizuna jarraitzea. Inperialismoa ez da munduko herrien borondate onaren gaineko inposizio zital bat, politika globalaren logikaren parte bihurtu da baizik.

Herrien bizitzarako berebizikoak diren beste gai batzuetan bezala, guda inperialista hauen irismenetik kanpo dago, eta horregatik antolatutako erantzun sozial baten eraikuntzak bakarrik diezaioke basakeria honi aurre egin eta erantzuleen zigorgabetasuna eragotzi. Guda Inperialistaren eta IAI Eren Aurkako Herrien Auzitegi hau herri antolakuntza prozesu horren parte izan nahi du.

Auzitegi honen herri izaera ez da egungo arautze juridikora doitzen. Halere, kasu bakoitzean eskumeneko instantzia judizialean garatzeko gai den oinarria duten salaketak aurkeztuko ditu. Bestalde, Auzitegi honek bere helburuekin bat datozen epai politiko eta sozialak helaraziko ditu; era berean, zigorgabetasuna ahalbidetzen duten eta babesten duten mekanismoak bereziki salatu eta kondenatuko ditu.

II. GIIAHAren izaera iraunkorraren inguruan.

Auzitegi honek hemendik aurrera hurrengo lerroetan jarraituko du bere lana:

- Auzitegiaren lanak eta ebazpenak zabaltzea.
- Guda Inperialista eta IAIE kondenatzen duten taldeen, pertsona eta antolakundeen arteko kontaktua, koordinazioa eta kooperazioa bultzatzea.
- Auzitegi honi informazio eta ekintza proposamenak hel diezazkion komunikazio bideak sortzea.
- Auzitegiaren Artxiboa eta Dokumentazio fondoa sortzea eta mantentzea.
- Existitzen diren mahai tematikoen lanei jarraipena ematea eta mahai tematiko berriak sortzea.
- Auzitegiaren sesio berriak deitzea, ohikoak edo monografikoak.

III. Mahaietan egindako eta osoko bilkuran aurkeztutako lanaren sintesia.

Jarraian mahai bakoitzean egindako lana laburbiltzen da bakoitzari dagokion bozeramaileak egindako aurkezpenaren arabera. Inolako sakontasun nahirik gabeko laburpena da, eta mahai bakoitzaren ebazpen partzialeri bideratu beharko liteke aurkezpen osatuago baterako:

IAIEren inguruko mahaiak aliantza militar hau mendebaldeko inperioaren egitura belikoaren funtsezko eta mundu mailako klase domeinuaren elementu bezala definitu du, non munduko herrialde garatuak eta aberatsenak kokatzen diren. IAIEk armamentu inbertsio eskari jarraitua sortzen duela planteatu da; geroz eta gehiago erabiltzen dituela zerbitzu sekretuak, operazio berezien unitateak, mertzenarioak, miliziak, eta abar, bere ekintza kriminalen gaineko kontrola saihesteko modu gisa; informazioaren kontrola eta manipulazioa sistematikoki egiten dituela zigorgabetasuna laguntzen duen guda kultura bat sortuz; ausazkotasun osoz egiten dituela aurkakoen identifikazioa, kondena eta exekuzioa. IAIEren mahaiak ondorioztatzen du: (1) aliantza militarra defentsarako karakterizatzea faltsua dela, egiatan erasorako tresna bat da; (2) IAIEren mundu mailako hedatzea ematen ari dela, dominazio ekonomiko eta komertzialerako beste ekintza batzuekin batera; (3) herrien subiranotasunari guztizko traizio batek leku hartzen duela hauetako gobernuak baldintza gabe IAIEri ematean eta AEBren diktatuei azpiratzean; (4) barne disidentziaren diziplinazioa eta kontrola dominazio sistema kapitalistaren sostengurako funtsezko baliabide bat dela; (5) egungo egoeraren zantzu bereizgarriak direla gizartearen militarizazioa eta beldurraren orokortzea; (6) haien onerako nazioarteko erakunde eta legaltasunaren erabilerak deskreditu jarraikorrak batera daramala; (7) IAIEk mugimendu faxistekin eta zerbitzu sekretuekin aliantzak osatzen dituela herrialde aliatuen baitan.

Komunikazio bitartekoen inguruko mahaiak gudaren aurrean komunikazio bitartekoen portaera aztertzea izan du helburu, gudaren promozio eta justifikazio praktikak salatuz, hala nola gauzatutako basakerien ezkutatzea. Helburutzat definitu du portaera horiek sostengatzen dituzten interesen identifikazioa, protagonizatzen duten pertsona eta instituzioen eta Estatuaren papera praktika horien aurrean inhibitzen direnean. Komunikazio bitarteko handiak bankuen eta holding-en sare baten jabetza direla konstatatu du, eta beraz komunikazio bitartekoak botere tresnak izatetik boterea espresatzen den forma izatera igaro direla. Komunikazio bitartekoek erabiltzen dituzten hizkera, estereotipoak eta diskurtsoa aztertu dute, ekintza bortitz eta bihozgabeen onarpen soziala errazten dutenak. Komunikazio bitartekoen mahaiak ondorioztatzen du: (1) komunikazio bitarteko handien ildo editorialak klase dominazioko inguruabar bateko interesei erantzuten diela; (2) bitartekoek zabalduak albisteen %80a hiru agenzia handik sortuak direla; (3) medioak eta kazetariak diziplinatzen direla, bitarteko zuzen eta zeharkako bidez, lan prekarietate inguruabar batean; (4) biztanleriaren medioen bitarteko diziplinamenduak gudak eragiten dituzten egoerak normaltzat edo erregulartzat onartzeko prestatzen duela, bere jatorria ezkutatzuz; (5) frogatuta dagoela kazetariak eta intelektualak ordainduak direla inperialismoak bozeramaile bezala aritzeko.

Errefuxiatuen inguruko mahaiak oinarri hartu du azkorra den bizilekutik alde egitera behartuak diren pertsona desplazatuaren kopuruaren azkortasunak men egiten diola mendebaldeko herrialdeek

nazioarteko enpresen bitartez eta ezaugarri inperialistako gatazka belikoetan parte hartuz egiten duten mundu mailako harrapaketa politikari. Desplazatu behartuen termino juridikoa migratu behartu guztiei zabaltzeko beharra azaleratu da, edozein delarik honen kausa. Errefuxiatuak zentzu juridiko hertsian egungo kapitalismo globalaren duintasuna gabeziaren testigu biziak direla azpimarratu da. Mahaiak bereziki sakona den lan bat egin du nazioarteko, eskualdeko eta Estatu legislazioaren kontraesan, bortxatze eta gabeziei dagokienean. Errefuxiatuen inguruko mahaiak ondorioztatzen du: (1) Europar Batasunak emandako erantzuna egoera honetan mugen itxiera eta militarizazioa izan dela; (2) erreakzio xenofoboek, klase dominatzaileek bultzatuak, langile klasearen banaketa laguntzen dutela; (3) nazioarteko, eskualdeko eta estatuko legislazioa sistematikoki hausten dela, gehienetan nahikoa ez dena halere, oro har ez baitago errefuxiatuak ez laguntzeko egina, hauen egoera larritzeko baizik; (4) biztanleriaren desplazamendu behartu hauek guda armatzat erabiliak direla; (5) Babes Legearen izozteak, beroan egiten diren itzulerak eta CIE eta CETIen gabeziak errefuxiatuen eta emigranteen babeserako atzera pauso bat suposatzen dutela Estatu espainiarrean.

Intentsitate baxuko guden inguruko mahaiak hurrengoak seinalatu du: (a) kapitalismoaren eta inperialismoaren arteko konexioa; (b) eraso inperialisten goraldi eta esanguratsuak diren inperialismoarenganako erantzun politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalaren arteko harremana; (c) "Intentsitate baxuko gudak" terminoak aurre egin behar zaion karga ideologiko bat daukala, eta horregatik mantendu da terminoa, bere kontraesanak erakusteko. Mahaiak bere lana injerentzia, zigorgabetasun eta erantzukizun kategorien arabera egituratu du, kasu konkrituak berrikusiz, hauen esanguratsutasunagatik eta lan sesioetan eskura izan den dokumentazioagatik aukeratuak izan direnak. Mahaiak hurrengo ondorioak atera ditu: (1) Negoziazio eta bake prozesuen erabilera engainagarria egiten da. (2) Subiranoak diren herrialdeak desorekatzeko agente politiko, sozial eta ekonomiko lokalak manipulatzeko dira estrategia inperialista global baten baitan, eta indar kolpistei babesa ematen zaie, atzerakoiak direnak. (3) Nazioarteko eskubidea sistematikoki bortxatzen da Estatu espainiarrak aliatutzat dituen potentzien eskutik. (4) Gudaren bitartez onura ekonomikoak bilatzen dira. (5) Gudak sortutako ingurumen eta klima kalteen gaineko kezka eza dago. (6) Estatu espainiarren auzi militarrekin erlazionatutako erabakiak gardentasun gabeko eta garantia demokratiko gabeko marko instituzional batean egiten dira. (7) EBk eta entitate sionistak duten akordio komertzialean aurreikusten denez, honen 2 artikuluan, honen anulazioa Giza eskubideen eta oinarri demokratikoen bortxaketa kasuan, beraz akordioan bertan behera geratu beharko liteke.

IV. Ondorioak.

2015eko Azaroaren 6, 7 eta 8an Madrilen bildu zen Guda Inperialistaren eta IAIEren Aurkako Herrien Auzitegi Iraunkorrek,
KONDENATZEN DITU

1. IAIEko goi mandatariak kondenatutako egitateetan duten guztizko erantzukizunagatik.
2. IAIE osatzen duten herrialdeetako gobernariak edo aktiboki harekin kooperatzen dutenak.
3. Dominazio inperialista bultzatu eta honetatik onura ateratzen duten enpresetako administrazio kontseiluak.
4. Mota guztietako agenteak (Estatuak, organismoak, pertsonak, talde paramilitarrak, etab.), zeinek posible egiten duten, ekintzez edo hauen ezaz, Auzitegiak identifikatu dituen esku hartze forma ezberdinak.
5. Nazioarteko, eskualde edo Estatu mailako egungo ordena juridikoaren gabezi osoa, zigorgabetasuna omisioz egingarri izatea ez ezik hau aktiboki ahalbidetzeko diseinatu baitago.

6. Munduko edozein lekutan zigorgabe geratzen diren inperialismoaren ekintzak, hala nola bere ondorio politiko, sozial, ekonomiko eta ingurumenekoak.

7. IAIEk mundu mailako eraso indar bezala duen goranzko aktibitatea, ondorio duelarik gudaren eta armagintzaren goranzko joera.

8. Hautu militarrek hartzean dagoen gardentasun eza, oinarri demokratikoen aurkakoa eta hiritargoaren kontrolatik edo ikuskapenetik harago.

9. Konkretuki momentu hauetan jazarpen eta eraso estrategia inperialista pairatzen duten Venezuelako, Donbasseko (Ukraina) eta Ekialde Hurbileko, batez ere Palestina eta Siria, egoera.

ESKATZEN DU

1. Auzitegiak salatutako egoeren errekonozimendu publikoa hauen erantzuleen partez.

2. Biktimen ordain morala eta, gutxienez, egungo legaltasunaren aplikazioa, hala nola egindako giza, ekonomia, gizarte eta ingurumen minen berrezarpena.

3. Eraso inperialistak egingarri egiten dituzten baldintzen ezeztapena, gerora errepikatu ez daitezten.

4. Espainiar Estatuko kasuan IAIEtik irtetea ukaezina da, base estatubatuarren ezeztapena eta aurrekontu militarren jaitsiera drastikoa.

ONDORIOZ

Guda Inperialistaren eta IAIEren Aurkako Herrien Auzitegi Iraunkorrak dei egiten die gizarte mugimendu eta antolakundeei kondena hauek berretsi ditzan eta hemen azaldutako eskariak betetzeko mugiarazi daitezten.

Madriren, 2015eko azaroaren 8an.